

Azentu, intonazio eta silabifikazioen funtzio bereizleez

Iñaki Gaminde

Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila. UPV/EHU

Inmaculada Hernáez

Elektronika eta Telekomunikazio Saila. UPV/EHU

José Luis Alvarez “Txillardegi”

Pilartxo Etxeberria

Euskal Filologia Saila. UPV/EHU

En este trabajo se analizan las funciones distintivas del acento, la entonación y la silabificación: Se contempla su importancia en los procesos de desambiguación lingüística. En la primera parte del trabajo tomando como base los datos de la variedad lingüística que hemos elegido, se presentan las diferentes distinciones, tanto léxicas como gramaticales, que se realizan por medio de las diferentes posiciones del acento. En la segunda parte se analizan las relaciones entre la entonación y la focalización, así como la importancia de la entonación en la distinción del foco. En la tercera parte, analizadas las diferentes funciones de la silabificación, se contemplan las relaciones de ésta con los diferentes constituyentes sintácticos. Por último, se tienen en cuenta las implicaciones didácticas derivadas de las diferentes estrategias analizadas.

Palabras clave: *Fonología, entonación, normalización lingüística.*

In this work we analyse the distinctive function of the accent, the intonation and syllabification. We consider the significance of these factors in the process of linguistic disambiguation. First, we present the lexical and grammatical distinctions given by means of the different positions of the accent. In the second part of the work, we analyse the relationships between focalization and intonation, together with an examination of the importance of the intonation in the distinction of the focus. In the third part of this work, after analysing the different functions of syllabification, we consider its relationship with the syntactic constituent elements. Finally, the didactic implications arising from the distinctive functions here studied are described.

Key words: *Phonology, intonation, linguistic normalization.*

Lan honetan azentu, intonazio eta silabifikazioen funtzio linguistiko bereizleak aztertzen dira. Funtzio hauek desanbiguatze linguistikoaren prozesuetan duten baliagarritasuna ere nabarmentzen da. Lehen sekzioan, gure azterketarako aukeratu dugun barietatearen datuetan oinarrituta, azentuaren bidez lortzen diren bereizketa lexikoak zein gramatikalak aurkezten dira; era berean azentuaren ezaugarririk garrantzitsuenak ere azaltzen dira. Bigarren sekzioan, fokoa eta intonazioaren arteko loturak eta azken honen balio bereizlea ere ikertzen dira. Hirugarren sekzioan silabifikazio desberdinen funtzioak aztertuz gero, berau eta sintaxiaren osagaien arteko loturak aztertzen dira. Azkenik, funtzio bereizle hauek eduki behar dituzten inplikazio didaktikoak nabarmentzen dira.

Giltzarriak: *Fonologia, intonazioa, hizkuntz-normalizazioa.*

SARRERA

Artikulu honetan azentu, intonazio eta silabifikazioen funtzio bereizleak aztertu nahi ditugu. Euskararen bariedade guztietan hiru suprasegmental hauek funtzio berberak betetzen ez dituzten arren, euren garrantziagatik uste dugu interesgarria izan daitekeela hemen aztertzea. Gaur egun dakigunaren arabera, azentuerak ez dauka funtzio bereizle bera euskararen bariedade guztietan. Are gehiago, bariedade batzuetan azelako funtziorik betetzen ez duela ere esan dezakegu (Gaminde eta Hualde 1995, Gaminde 1997b). Intonazioari buruzko ikerketak gure artean aski berriak direnez gero, alor honetan ere generalizazio handirik ezin egin dezakegu. Zelangura ere den, fokalizazio eta intonazioaren arteko interakzioa sarritan nabarmendu izan da (Hualde, Elordieta eta Elordieta 1993 bereziki), hori dela eta interesgarri deritzegu honi buruzko hausnarketa egiteari eta datu berriak plazaratzeari. Azkenik, silabifikazioaren funtzio bereizle eta desanbiguatzaileari buruz euskaraz lehenengoz aurkezten dira datuak eta azterketak.

Hiru funtzio bereizle hauek anbiguetate linguistikoarekin lotuta agertzen zaizkigu. Berau oso fenomeno arrunta da eta askotan aztertua izan bada ere, euskarari dagokionez ez du izan beharko lukeen arreta. Anbiguiteak katea mintzatu berberari legozkiokeen esanahi desberdin posibleei erreferentzia egiten die. Honelakoetan, eskuarki, esaldi bakoitzaren mezu zuzena zein den jakiteko hiztunok estrategia desberdinak erabiltzen ditugu, batzuk linguistikoak eta beste batzuk pragmatikoak; sarritan testua gauzatzen den kontestuak ematen dituen datu ez-linguistikoetatik esaldiak desanbiguatzeko beharrezko informazioa ateratzen da. Anbiguetate linguistikoa sailkatzekotan hiru mota bereiztu izan dira: pragmatikoa, lexikoa eta gramatikala.

Ondoko esaldi hau, besterik ezean, irakurri behar izango bagenu guztiz anbigua dela esango genuke, izan ere, interpretazio bi egin daitezke:

(1) lagunak ekarri ditu.

Testuinguruaren informaziorik gabe, batetik, lagun horrek aipatzen ez diren gauza batzuk ekarri dituela uler dezakegu, eta bestetik, aipatzen ez den subjeto batek lagunak ekarri dituela. Hala ere, euskararen bariedade askotan, ahoz emanda esaldia ez litzateke batere anbigua izango, azentueraren funtzio bereizleari eskerrak ulertuko litzateke eta. Jarraian bariedade bitan egin daitezkeen interpretazio desberdinak ematen ditugu:

(2a) lagúnak ekarri ditu (subjetoa)

(2b) lágunak ekarri ditu (objetoa)

(3a) lagunák ekarri ditu (subjetua)

(3b) lagunak ekarri ditu (objetua)

Gure lan hau egin ahal izateko beharrezko datuak mendebaldeko euskararen Gatikako barietatean bildu ditugu eta eurok hartuko ditugu oinarriztat.

Lanaren lehen sekzioan azentueraren ezaugarriarik garrantzitsuenak aurkeztu ostean, dauzkan funtzio bereizgarriarik nagusienak aztertuko ditugu. Bigarren sekzioan fokoa eta intonazioaren arteko erlazioak ikusiko ditugu, esaldiaren elementuak fokalizatzeko intonazioak duen funtzioa nabarmenduz. Hirugarren sekzioan silabifikazio desberdinen bidez egiten diren desanbiguazioak arakatuko ditugu, era berean azterketa fonologikoa eginda, arau fonologikoen korrelato akustiko desberdinak ere emango ditugu. Lan honen azken sekzioan zenbait ondorio iradokiko dugu eta euron inplikazio didaktikoez oharterazten ahaleginduko gara.

AZENTUERA

Barietate honetako azentueraren ezaugarriarik nagusienetakoa morfema azentudun eta azentubakoek arteko bereizkuntza dugu (Gaminde eta Hualde 1995, Gaminde 1997b). Morfema azentudunak hiru eratakoak izan daitezke; batetik azentua silaba jakin batean biltzen duten erroak, léku, bekóki, bélarri, e.a; beste alde batetik, aurreazentugarriak diren morfemak ditugu, morfemok azentua euren aurreko silaban txertarazten dute, euron artean atzizki batzuk kokatzen dira: -ti, -or, -en, -ago, e.a.; azkenik, morfema aurre-aurreazentugarriak ditugu: -pe, -te, -ko, e.a., morfema hauek azentua silaba bi lehenago txertarazten dute. Morfema azentubakoek azentua afijazio guztien ostean azken silaban hartzen dutenak dira. Azentu lexikala daukaten morfema azentudunak markatutzat jo ditzakegu eta azalean, arau zehatzaren arabera, azentua hartzen duten azentubakoak ez-markatutzat. Bestalde, barietate honetan, gauzapan fonetikoan, tonu hedapena dugu, hots, azentua txertatzen den silabatik hasierarantz tonu altua hedatu egiten da, lehen silabara izan ezik.

Barietate honetako berezitasun morfofonologikoak direla eta (Gaminde 1992), beste batzuetan baino errendimendu desanbiguatzaile handiagoa du azentuerak (Gaminde 1997a). Jarraian azentueraren balio bereizgarrietariko batzuk aztertuko ditugu.

a. Berben arteko bereizketa:

Azentu lexiko eta arrunta daukaten hitz pare zenbait aurki dezakegu barietate honetan, eurotan azentuaren kokaguneak hitzaren esangura zehazten du (1. eta 2. irudietan "txistú bota dau" eta "txístu bota dau" esaldien kurben desberdintasunak ikus daitezke):

arté (zuhaitza)

árte (bitarte)


txistú (ttua)

txístu (musika tresna)


ausí (hautsi)

áusi (ahausi)

1. IRUDIA. Txistú bota dau



2. IRUDIA. Txistú bota dau




Hauen artean, multzo garrantzitsua osatzen dute mailegu berri eta hitz zaharren bidez (mailegu zaharrak izan arren) egiten diren pareek

basó (baso)	báso (edalontzia)
ulé (ilea)	úle (ulea)
sillé (zila)	sílle (aulkia)


Era berean erdaratik heldu berri samarrak diren maileguetan ere hitz pareak, azentuaren bidez bereiztuta, aurki ditzakegu (3. eta 4. irudietan "fruterú da" eta "frutérú da" esaldien kurbak erka daitezke):

karteré (postari andrazkoa)	kartére (diru zorroa)
fruterú (fruta saltzailea)	frutérú (frutontzi)
basurerú (zabor biltzailea)	basúreru (zarbortegia)

3. IRUDIA. Fruteru dá




4. IRUDIA. Frutéru da




Izenak (i.) eta aditz partizipioak (a.p.) azentuaren kokagunearen bidez ere bereizten dira, hala bada aditz partizipioak ez-markatuak dira eta izenak, berriz, azentu lexikala hartzen dute (5. eta 6. irudietan "bos kantá dire" eta "bos kánta dire" esaldien kurbak ikus daitezke):

- | | |
|--------------|------------|
| tapá (a.p.) | tápa (i.) |
| kantá (a.p.) | kánta (i.) |
| kargá (a.p.) | kárga (i.) |

5. IRUDIA. Bos kantá dire



6. IRUDIA. Bos kánta dire



b. Konposatuak eta Izen sintagmen arteko bereizketa:

Izen eta adjetibo konposatu batzuek lehen konposagaiaren azken silaban hartzen dute azentua, era honetara hitz markatuak sortuz. Euren pareak izan daitezkeen izen sintagmak, ostera, arau orokorraren arabera azentuatzen dira:

sagúsarra (k.)	sagu sarrá (i.s.)
burú andí (k)	buru andí (i.s.)
neská sarra (k)	neska sarrá (i.s.)
amánkomun (k)	aman komún (i.s.)

Posposizio eta hitz batzuk ere bereizten dira:


ordún (orduan)	órdun (orenean, garaiz)
aldén (aldean eroan)	álden (-ren aldean)
ondó (ondo, ongi)	óndo (albo)

c. Morfo-sintaxian egiten diren bereizketak:


Gorago aipatu ditugun morfemen propietate prosodikoen bidez, deklinabidean, erakusleetan, aditz jokabideetan eta esaldien osaketan bereizketa asko egiten dira. Deklinabidean, alde batetik, singularrak (s.) eta pluraliak (p.), eta bestetik mugagabeak (m.) eta pluralak (p.) azentuaren kokagunearen bidez bereizten dira (7. eta 8. irudietan "lagunená da" eta "lagúnena da" esaldien kurbak ikus daitezke):

semerí (s.)	sémeri (p.)
lagunená (s.)	lagúnena (p.)
iru étzetan (p.)	iru etzetán (m.)
bos básotan (p.)	bos basotán (m.)

7. IRUDIA. Lagunena dá



8. IRUDIA. Lagúnena da



Erakusle eta leku aditzondoetan arruntak (e.a.) eta á- aurrizki azentudunaren bidez egiten direnak (e.i.) bereizten dira; lehenengoak azentudunak dira eta besteek goranzko-beheranzko tonu bikoitza aurkezten dute :

án (e.a.)	ân (e.i.)
á (e. a.)	â (e.i.)

Honen antzeko pareia yón (Jon pertsona izena) eta yôn (joan aditzaren partizipioa) hitzen bidez daukagu. Joan aditz partizipioa (yón) goranzko-beheranzko tonu baten bidez agertzen zaigu, beronen jokaera trinkoan nó, ó, dó, gós eta abar ditugu, hots, forma lexikaletan adizki bakoitzak AB tonu bikoitza asoziatuta dauka. Gaminderi (1993) jarraikirik "ez" eta "ba" proklitikoekin agertuz gero tonu altua lehen silabara egokitzen da, gainerako aditz trinkoekin gertatzen denari aitziz; ondo-ko adibideotan aditz trinko desberdinen jokaera ikus daiteke:

badatór	badabíll	badakí	bádo
estatór	estabíll	estakí	ésto

Ikusten den moduan, joan aditzaren adizkietan kontrako azentuera dugu, zeren AB tonu bikoitzaren A lehen silabara egokitu baita:

[bá] [do]	[es] [do]
^	^
A B	A B

[bado]	[esto]
\^	\^
A B	A B

[bado]	[esto]
A B	A B

Izenak eta nominalizazioak bereizten dira kasu bakar batzuetan: asté (astea) áste (hastea); bizkaieraren beste barietate batzuetan kasu gehiago gertatzen da: sáltzea (saltzea) saltzéa (saltsa), ártzea (hartzea) artzéa (artza, indabak eta garbitzeko tresna). Silaba biko "-tu" eta "-du"z amaituko aditz partizipioekin nominalizazioak (n.) eta aditzondoak (ad.) ere bereizten dira:

saldúte (ad.)	sáldute (n.)
artúte (ad.)	ártute (n.)
galdúte (ad.)	gáldute (n.)
eldúte (ad.)	éldute (n.)

Hiru silabako zenbait izenekin izena (i.) eta atributua (a) azentuaren kokaeraren bidez ere bereizten dira:

abadé dau (i.)	abáde dau (a.)
kriedú dau (i.)	kriédu dau (a.)
soldadú dau (i.)	soldádu dau (a.)

Erlatibozko esaldi ez jokatuak egiteko erabiltzen den morfema "ko" dugu, berau aditz partizipioari dautsola erabiltzen da; bestalde, "'ko" atzizki aurre-aurrea-zentugarria aditzen geroaldia egiteko ere erabiltzen da. Ondoko adibideotan erlatibo ez-jokatuak (e.e.) eta geroaldiak (g.) ikus ditzakegu:

sálduko da (g.)	salduko da (e.e.)
gálduko da (g.)	galduko da (e.e.)
élduko da (g.)	elduko da (e.e.)

Esaldietan, azkenik, menperagailu guztiak markatuak dira, hots, baldintzeta-ko ba- azentuduna da (bá-), erlatibozko -n eta -la, berriz, aurreazentugarriak. Erlatibozkoetan esaldi deklaratuak (e.b) eta erlatibozkoen (e.) arteko bereizketa ondoko era honetara adieraz dezakegu:

ekarri sendún umé (e.b.)	ekarri séndun umé (e.)
ikusi gendún etzé (e.b.)	ikusi géndun etzé (e.)

Baldintzazko eta baiezko esaldiak ere berdin bereiz ditzakegu:

bádaki obeto	badakí obeto
bádeko obeto	badeko obeto

Azentuaren balio desanbiguatzailaren garrantzia ez da maila batekoa izaten euskararen barietate guztietan, hau barietaterik barietate azterkizun daukagun arazo bat da. Hala ere, maila bateko edo besteko azentu bereizgarria duten barietateetan azentuaren garrantzia ukaezina delakoa daukagu.

INTONAZIOA

Sekzio honetan esaldi mota batzuen elementuak fokalizatzean intonazioaren zeregina zehazten ahaleginduko gara. Gauza jakina da euskarak esaldiaren informazio berria fokalizatzeke baliabide desberdinak dituen; are gehiago, gramatikaren kategoria desberdin batzuen aldagai indartuak eskuarki galdegaigunean baino ez dira agertzen (hauxe, neu, hementxe, e.a.).

Baliabide horien arteko batzuk hitzordenarekin artez lotuta agertzen zaizkigu

(1) (mutila) sartu da

(2) () sartu da mutila

Beste baliabide batzuk, ostera, kategoria lexiko batzuen propietateekin lotuta agertzen dira:


(3) sartu egin da

(4) eroan daroa


Hauetz ostera, fokalizatzean intonazioaren garrantzia sarritan nabarmendu da. Alta, orain arteko lanetan intonazioaren garrantzi hori nabarmendu bada ere, inoiz ez da instrumentuen bidez aztertu, ez eta zehaztu zertan datzan; gehienez, gainerako baliabideren batekin erlazionatuta ikusten izan da (salbuespentzat Hualde, Elordieta eta Elordieta (1993) aipa dezakegu).

Gure aurreko lan batean (Gaminde eta la. 1996) aipatzen genuen moduan, intonazioaren funtzioen artean mota bi bereizten dira, hiztunaren egoeraren berri ematen digutenak eta esaldi mota desberdinen artean bereizketak egitekoak; hala intonazioaren bidez esaldi deklaratazaileak eta galderak bereiz daitezke. Oraingo honetan esaldi deklaratazaileetan fokoa markatzeko intonazioak duen papera aztertuko dugu, izan ere, 9. eta 10. irudietan ikusten den bezala, kurben konfigurazio desberdinek foko desberdintasuna adierazten dute. 9. irudian fokalizatutako elementua aditzaren aurrean dagoena dugu; 10.ean, berriz, honez gero ekintza burutua dela adierazi nahi da, horretarako azentu fokala aditzaren azkenaurreko silaban kokatzen da. Beraz, esaldi pare hauetan esangura intonazioaren bidez baino ezin bereiz daitezke.

9. IRUDIA. Lurrê saldu dau



10. IRUDIA. Ona saldu dau




Sekzio honen helburua bikoitza izan da; batetik, esaldi pareak daudenean lortu ditugun kurben karakterizazio akustikoa aztertu gura izan dugu analisi fonetikoan oinarrituta; eta bestetik, pertzepzioaren analisiaren bidez, kurba desberdintasun horiek, euskalki bereko hiztunentzat, zenbateraino diren bereizgarriak ere aztertu gura izan da. Lehenbiziko analisi fonetikoaren bidez, esaldien intonazio kurben ezaugarri akustiko nagusiak atera gura dira. Analisi fonologikoaren bidez, berriz, desberdintasun fonetiko horiek gramatikak nola antolatzen dituen jakin gura da.

Azterketa fonetiko hau osatu dugun corpusean agertzen diren esaldiak erizpide desberdinen arabera sailka ditzakegu. Lehengo eta behin, esaldiak osatzeko agertzen diren hitz markatu eta ez-markatuen arabera sailka ditzakegu. Bigarren erizpidea, esaldiaren fokoa zein den nabarmentzea dugu; beraz, esaldi mota bi bereiz ditzakegu, batzuetan fokoa aditz aurreko sintagma da ($F=S$), eta besteetan, baiezpena bera ($F=A$). Ñabardura eta aukera guztiak geroagoko lan zehatzago baterako utzita, hemen azken emaitzak baino ez ditugu aurkeztuko.


Ondoko grafikoa esaldi deklaratzailen batez-bestekoen arabeko kurbak ikus daitezke, FS erakoan fokalizatutako elementua aditz aurrean kokatuta dagoena da, FA erakoan, berriz, aditza bera da nabarmentzen dena:

FS	1	1,14267	1,22622	0,91517	0,81748	0,79563
FA	1	1,12325	1,22109	1,24142	1,24142	0,83227




Hitz markatuen kasuan azentu lexikala kokatuta dagoen silabaren arabera bereizketa txiki bat egin behar dugu, izan ere, azentua lehen silaban ager daiteke, lán-dare, bélarri, e.a. edo bigarrenean, solómo, lapíko. Hala ere, kurben konfigurazioak desberdinak diren arren, desberdintasunari eutsi egiten zaio, ondoko grafikoetan ikusten den bezala:

FS1	1	0,8370535	0,8370535	0,7109375	0,7053571	0,6852678
FA1	1	1,0802469	1,1172839	1,0401234	1,0401234	0,6255144



FS2	1	1,2113402	0,9304123	0,8118556	0,8298969	0,7976804
FA2	1	1,2286432	1,2977386	1,2311557	1,4032663	0,7701005



Azterketa fonologikoan, kontutan hartu behar da azentu fokalaren kokaera, izan ere, berba markaturik egon ezta, beronen bidez esaldiaren osagaiak zerraditzen dira. Behin esaldia osatuz gero, sintaxiaren atalak fokoaren kokaguneari buruzko informazioa eman behar digu. Informazio horren bidez, esaldiaren osagaiak mugatuko genituzke; fokoa aditz aurrekoa izanik, fokalizatutako elementuaren azken silaban azentu fokala (A´) kokatuko litzateke; fokoa hori ez bada, orduan azentu fokala aditzaren azkenaurreko silaban kokatuko litzateke, adibidez:

txakurre saldu dau	txakurre saldu dau
A´	A´

Osagaiak honela mugatuko lirateke:

[txakurre] [saldu dau] [txakurre saldu dau]
A´

Hona helduta fokodun osagaien A*B azentu-tonudunak txertatu egingo lirateke, gure kasuan esaldiko azentu-tonudun bakarra txertatuko genuke azentu fokalarekin bat eginda, hitz markatuak baleude azentu-tonudun batzuek bat egingo lukete azentu lexikalekin.

[txakurre] [saldu dau] [txakurre saldu dau]
A*B

Tonu baxua ondoko silabara egokitu ondoren, muga tonu baxuak (B%) txertatuko genituzke esaldiaren mutur bietan:

[txakurre] [saldu dau] [txakurre saldu dau]
B% A B B% B% A B

Azkenik, esaldiaren gailurra dagoen tonu altuan txertatu eta ostean, tonu altua esaldiaren hasierarantz hedatzen da eta libre dauden silabetan tonu baxuak txertatzen dira:

[txakurre] [saldu dau] [txakurre saldu dau]
\
B% A B B% B% A B

Hitz markatuen kasuan azterketa bera egingo litzateke, kontutan hartuta azentu lexikala dagoen silaban beste A*B azentu tonudun bat txertatzen dela.

Fokalizazioaren intonazioaren bidezko bereizketa hau kontestualizatzen badugu honako testu hauek eman ditzakegu (fokoa ^ ikurraren bidez adieraziko dugu):

- A- zer saldu du?
- B- urê saldu dau

A- urik badauka?

B- ez, ure saldu dau

Azken honetan fokalizatzeke beste aukera bat ordenari dagokiona da:

B- ez, saldu dau ure

Egin ditugun pertzepzio test batzuen emaitzen arabera, esan dezakegu ezen, antzeko sistimak erabiltzen direla mendebaldeko barietate guztietan. Testa egin ahal izateko lekukoei 20 esaldi entzunarazi egin genizkien (ikus eranskina), esaldi haue- tako zortzitan fokalizatutako elementua ez da aditzaren aurrekoa. Informatzaileei, esaldiak entzun ahala, euren eritziz informaziorik garrantzitsuena azpimarratzeko eskatu zitzaien, jarraian esaldi originalekin erkatu ziren jakiteko pertzeptzioaren ara- bera beste barietate batzuetako lekuko horiek informazio berri bera hartzen zuten. Emaitza hauek barietate honetik ulermen maila ezeze lekukoek antzeko sistimaren ideia irudikatzen digute. Denetara 18 proba egin ditugu, informatzaileak Gatika, Bermeo, Muxika, Gernika, Arteaga, Aulesti, Lekeitio, Munitibar, Larrabetzu, Zornotza, Abadiño eta Igorrekoak izan dira. Huts kopurua 0 eta 3 artekoa da, ondo- ko taulan herriaren ondoan huts kopuruekin batera portzentaia ere ematen dira:

Herria	Kopu.	%	Herria	Kopu.	%	Herria	Kopu.	%
Gatika1	0	100	Gernika2	0	100	Larrabe1	0	100
Gatika2	0	100	Arteaga	0	100	Larrabe2	0	100
Bermeo	1	95	Aulesti	0	100	Zornotza	0	100
Muxika1	1	95	Lekeitio1	0	100	Igorre1	0	100
Muxika2	0	100	Munitibar	1	95	Igorre2	3	85
Gernika1	0	100	Lekeitio2	0	100	Abadiño	3	85

Huts kopurua %2,5 baino ez da, beraz esan dezakegu intonazioak garrantzi handia duela fokalizatzean eta fenomeno hau berdintsu gauzatzen dela bizkaieraren eremu osoan.

SILABIFIKAZIOA

Azken sekzio honetan silabifikazioa eta beronen funtzio bereizlea aztertuko ditugu. Silabifikazioaren funtzio bereizle hori guztiz lotuta agertzen zaigu esaldiaren osagai sintaktikoekin. Aztertzen ari garen barietate honetan "orain ez" eta "oinez" sakonean honelakoak direla proposa dezakegu:


[oin] [es] [oines]

Silabifikazioaren aurretik palatalizazio (1) eta semibokalaren desagerketa (2) arauak aplikatzen dira:

(1) [oiñ] [es] [oiñes]

(2) [oñ] [es] [oñes]

Hona helduta silabifikazioa egingo litzateke osagai sintaktikoen barruan:



Lehen adibidean "ñ" silabaren kodan agertzen da eta bigarreanean, ostera, hurrengo silabaren hasieran.

Har dezagun orain ondoko esaldia:

[iru txakur ándik etor dire]

Esaldi horrek jarraian zehazten diren interpretazio biak eduki ditzake:

a) hiru txakur handik etorri dira

b) hiru txakur handiak etorri dira

Esaldi bakoitzaren osagai sintaktikoak ondoko era honetara eman ditzakegu:


[[iru txakur] [andik] [etor dire]] [[iru txakur andik] [etor dire]]

Kasu hauetan azentuak ez du desanbiguatzen laguntzen, izan ere, azentua eta esaldiaren gailurra beti silaba batean kokatzen dira. Hala ere, badakigu jakin, kontestu zehatzik gabe ere, barietate honetako hiztunek bereizten dituztena, bai pare hauek, bai gerta daitezkeen garaitako amaieren bidez sor litezkeenak ere. Kontestu hauetan ager daitezkeen amaierak /r/, /n/, /l/ eta /tz/ dira. Silabifikazioa maila desberdin bitan egiten dela proposatu behar dugu, lehen maila batean, sintagmak sortu aurretik, "txakur" hitzaren azken /r/ anizkun gisara silabifikatuko litzateke; osagaien osaketaren osteko silabifikazioan /r/ hori aurreko silabaren kodan geratuko litzateke edo hurrengo sintagmaren hasieran kokatuko litzateke:


	[iru] [txakur] landik]	[iru] [txakur] [andik]
1. silabifikazioa	[i.ru] [txa.kurr] [an.dik]	[i.ru] [txa.kurr] [an.dik]
Osagaien mugak	[i.ru.txa.kurr] [an.dik]	[i.ru.txa.kurr.an.dik]
2. silabifikazioa -	-	[i.ru.txa.ku.rran.dik]

Silaben desberdintasun hauek kontsonanteen gauzpen fonetikoari ere eragiten diote, kodan edo hasieran egonda kontsonanteen luzeerak desberdinak dira (11. eta 12. irudietan /r/ren desberdintasunak ikus daitezke). Ondoko taulan desberdintasun horiek kuantifikatuta ematen ditugu:


	Koda	Hasieran		Koda	Hasieran
r	58	43	l	78,5	64,5
n	59,5	45,5	tz	104,5	88,5



11. IRUDIA.



12. IRUDIA.



ONDORIOAK

Aurkeztu berri ditugun suprasegmentalen funtzio bereizleen garrantzia onartuta, euskararen irakaskuntzak, dela lehen hizkuntza gisa irakasten denean, dela bigarren hizkuntza gisa irakasten denean ere, ezin bazter utz ditzakeela uste dugu; zeresanik ere ez dago beronek implikazio didaktiko zehatzak eduki beharko litzukeela irakurketa euskaraz irakasten denean. Silabifikazioaren kasuan, esate baterako, euskaraz eta gaztelaniaz hitz amaierako /r/ak desberdin silabifikatzen dira. "Motor Auto" izen berezia irakurtzean, silabifikazio desberdinen ondorioz gaztelaniaz eta euskaraz ondoko era hauetara irakurriko litzateke:

Gaztelaniaz: /mo.to.rau.to/

Euskaraz: /mo.to.rrau.to/

Euskara batuaren prosodia erabaki gabe dagoen artean, ezin batasunari begira proposamen zehatzik egin dezakegu; zelangura ere den, uste dugu ezen, ume euskaldunekin bederen, etxetik eskolaratzen dituzten arau fonologikoak eskolan gero ez liratekeela galdu behar, are gutxiago txarto ulertuko batasunaren izenean, batzuetan eredu arrotzak estaltzeko baizik balio ez duena.

BIBLIOGRAFIA

- Gaminde, I. (1992). *Urduliz eta Gatikako herri hizkeren azterketa linguistikoa*. Doktorego tesia. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Gaminde, I. (1993). *Bizkaiko azento-motei buruz*. Uztaro, 7, 111-140
- Gaminde, I. (1997a). Mendebaldeko azentuak. In *Mendebalde Kultur Elkartea: Mendebaldeko euskara XX. mende goiengan*. Bilbo.
- Gaminde, I. (1997b). *Euskaldunen azentuak*. (Esku-izkribua)
- Gaminde, I, eta Hualde, J. I. (1995). Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa. *Asju*, 29-31, 175-197
- Gaminde, I., Hernández, I., Etxeberria, P., eta Gandarias, R. (1996). Euskal fonologiaren didaktikarantz: intonazioaren azterketa. *Revista de Psicodidáctica*, 1, 121-138.
- Hualde, J. I., Elordienta, G. eta Elordietza, A. (1993). Focalización y prosodia en vascuence vizcaíno. *Asju*, XVII-3, 731-749.

ERANSKINA

Hemen bigarren sekzioan aurkeztu ditugun pertzepzioaren emaitzak lortzeko testaren esaldiak eurak aurkezten ditugu. Testaren esaldiak egin ziren orden berean ematen ditugu ^ ikurraren bidez fokalizatutako elementua aditz aurrekoa ez dela adierazi nahi da:

ure saldu dau	txakurre saldu dau	lurre saldu dau	ure saldu dau
baltza saldu dau	piperra saldu dau	sagarra saldû dau	baltza saidû dau
ona saldû dau	bedarra saldû dau	ure saidû dau	sagarra saldu dau
bedarra saldu dau	ona saldu dau	piperra saldu dau	txakurre saidû dau
lurre saldû dau	piperra saldû dau	sagarra saldu dau	ona saldu dau